



**COMGI**

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa  
Colegio de Médicos de Gipuzkoa

# Itolarrian bizi dira Lehen Arretan

## *Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Gobernu Batzordea*

Korrontearen kontra igerian bezalaxe lan egiten dute aspalditik Lehen Mailako Arretako sendagileek. Behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu lan baldintza duinak merezi dituztela eta horretarako antolakuntzan aldaketa sakona egin beharra dagoela. Luzera begirako plangintza ezinbestekoa bada ere, aldaketa horiek, funtsean, ez dirudite hain zailak: langileen egonkortasuna bermatu eta plantillak handitu, bete daitezkeen agendak diseinatu eta profesionalen gehiegizko lan karga arindu.

COVID-19a gure bizitzara heldu zenetik ia bi urte pasa dira. Gure kasuan, gainera, birusa gure lanpostuetara ere iritsi zen eta gure eguneroko lana zeharo baldintzatu zuen. Geroztik, korrontearen kontra igerian jarraitzen dugu, baina dagoeneko itolarrian bizi gara eta bada igerian jarraitzeko indarrik ere ez duenik. Bitartean, badira itsasertzetik ikusten gaituztenak, baina salbamendu-txaluparik bidali gabe.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargotik sendagileek gaur egun pairatzen dituzten lan baldintza gogorak azaleratu nahi ditugu. Batetik, egunero osasun zentroetara hurbiltzen diren pertsonak horiek ezagutu eta gurekin bat egin dezaten, baita gizarte osoak ere; eta, bestetik, instituzioei beste behin ere hausnarketa sakon bat eskatzeko, behar diren neurri eta aldaketa estrategikoak martxan jar ditzaten lehen bait lehen.

Arazo nagusiak ondorengoak dira:

- Bete ezin diren agendak: COVID-19ak oraindik ere presio gehiago ekarri du sendagileen agendatan eta bete beharreko zereginak handitu besterik ez dira egin. Hori guztia, gainera, gaixoen egoera inoiz baino konplexuagoa denean eta euren osasun mentalekin zer ikusia duten hainbat eta hainbat patologia ikusten ari garenean. Gure gaixoek kalitatezko arreta behar dute eta horretarako guk denbora behar dugu, ez korrika eta presaka lan egin, bisitak, deiak eta burokrazia amaigabe baten gorpolean. Testuinguru horretan oso zaila da gure praktika klinikoarekiko konfiantza mantentzea eta frustrazio handiarekin bizitzen dugu segurtasun gabezi hori.
- Lan taldeko bilerak murriztu egin dira. Horiek ezinbestekoak dira diagnostikoak edo kasu zailak konpartitzeko, eguneroko arazoei irtenbideak bilatzeko, elkarrekiko formakuntza bultzatzeko...
- Sendagile egoiliarren formakuntzak ere okerrera egin du nabarmen; testuinguru zail honetan, tutore izandako sendagile ugari funtzio hau uztea erabaki dute eta ez dago esan beharrik benetako arazoak daudela egoiliarren tutore berriak aurkitzeko. Tutorerik gabe, egoiliarren formakuntza arriskuan dago.



**COMGI**

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa  
Colegio de Médicos de Gipuzkoa

- Autoformakuntzarako aukerak gero eta urriagoak dira, gure jarduera profesionalerako ezinbestekoa direnak. Era berean, gero eta zailagoa da ikerketarekin zer ikusia duten jarduerak egitea. Horrek guztiak gure lankideen desmotibazioa handitu besterik ez du egiten.

Ez da harritzekoa, beraz, lanbide hau uzteko erabakia hartzen duten sendagileak gero eta gehiago izatea. Korrontearen kontra igerian urteak eman eta gero, indarge sentitzen dira eta egindako esfortzua eginda ere, itsasertzea oraindik ere urrutiegi dago. Bada beste herrialde batera lanera joatea erabaki duena; bada osasun zentroa uzteko beste espezialitate bat ikasten jarri dena; eta bada zuzenean beste ogibide batera salto egin duena ere. Sendagile falta arazo larria den honetan, ezin ditugu lankide gehiago galdu.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak instituzioei eskatzen die berehala ekintzara pasa daitezten: egin ditzatela behar diren aldaketa estrategikoak, har ditzatela soberan ezagun dituzten arazoei aurre egiteko neurriak. Gure sendagileek baldintza duinetan lan egiteko eskubidea dute eta gaixoek, gizarteak orokorrean, segurtasunez eta denbora nahikoaz artatuak izatekoa.

Guztion kalitate asistentziala dago jokoan, eta, batez ere, sendagileen biziraupena. Bidali itzazue salbamendurako neurriak lehen bai lehen.

***Gobernu Batzordea:***

Manuel García Bengoechea, Valentín Collado Espiga, Ignacio Eizaguirre Sexmilo, María Belén Alonso Macías, M<sup>a</sup> Aranzazu Elícegui Sarobe, Víctor Irigoyen Murua, Ander Letamendia, Belén López Rubio, Carmen Solórzano Sánchez, Carlos Benito Gómez, Irune Alzola Elizondo, Iñaki Sanz Esquiroz, M<sup>a</sup> Emma del Campo Pena, María Asunción Guerra Alonso, Xanthe Luna Harvey.